

QUEER CINEMA FOR PALESTINE

Kolektiboki antolatutako mundu mailako jaialdia

Queer Cinema for Palestine (QCP) jaialdiak azaroan irekiko ditu ate birtual nahiz fisikoak. Hamar eguneko zinema festibala kolektiboki komisariatua izan da, eta *queer* errealitateak globalki azaldu nahi ditu, palestinarrei elkartasuna adieraztearekin batera. Azaroaren 11tik 20ra bitarte, hamaika ekitaldi abiatuko ditu bost kontinenteetan. Bilbon, azaroaren 19an izango da zinema proiektzioa eta filmaren osteko eztabaida, Sare Lesbianistak antolatuta, Karmelan.

 AINHOA GUTIERREZ DEL POZO

Zinemagileek eta zinema artistek osatzen dute QCP, palestinar LGBTQ+ kolektiboarekiko sostengu espazio gisa. Jaialdiak iraungo duen hamar egunetan internet bidezko nahiz aurrez aurreko saioak eskainiko dira Hego Korea, Hegoafrika, Tunisia, Libano, Kosovo, Italia, Irlanda, Frantzia, Kanada, Bulgaria, Brasil eta Euskal Herrian. Jaialdiak filmak eta dokumentalak aurkeztuko ditu –tartean Palestinakoak eta Afrika hego-mendebaldekoak zein iparraldekoak-. Horrez gain, bestelako ekimenen eskaintza zabala ere badakar: klase magistralak zinemagileekin, mahai-inguruak, *drag queen* emanaldiak, *queer* indigenei elkartasuna adierazteko ekitaldia, eta beste.

Ekimena Israelgo gobernuak babestutako TLVFest jaialdiaren harira sortu da. Apartheidaren erregimenaren aurpegi zuriketa izan nahi duen LGTB zinema jaialdiak 50 zinemagile baino gehiagoren lanak kendu ditu bere filmen arte-tik, eta *queer* komunitate palestinarrek jaialdiarekiko boikota eskatu du. Gaine-

ra, 200 bat zinemagile posizionatu egin dira palestinarren deiar erantzunez, eta lanak ez dituzte TLVFesten proiektatuko. Brasilgo film laburren programa berezi batek, adibidez, 2020an TLVFestetik erretiratu ziren zortzi zinemagile brasildarrak omenduko ditu.

QCP-k artearen bidez gizartea eraldatzeko tresna gisa ulertu nahi izan du jaialdia. *Queer* zinema juduaren programa bat aurkeztuko du bere baitan, baita palestinarrekiko elkartasunak izan ohi duen errepresioari buruzko mahai-inguru bat. Horrekin lotuta, “Apartheid-a lehen eta orain” programak Hegoafrikako, Palestinako eta nazioarteko filmak bilduko ditu, baita zinemaren eta komunikabide berrien erabilerari buruzko hitzaldiak ere, apartheidaren eta boikotaren aurka egitea xede, taktika aktibista gisa. Aswat Genero eta Sexu Askatasunerako Palestinako Zentro Feministaren sortzaileetakoa den Ghadir al Shafie militanteak hala adierazi du: “*Queer* palestinarrek zaretenez, Queer Cinema for Palestine jaialdian gurekin bat egitera

gonbidatzen zaituztegu. Jaialdi feminista, arrazakeriaren aurkakoa eta antikoloniala da, eta ‘bai’ oihukatzen dio *queer* zinemari eta ‘ez’ Israelgo apartheidari”.

EUSKAL HERRIAN ERE BAI

QCP zinema ekimena mundu mailako koalizio batek antolatzen du, askotariko eragileak biltzen dituen, zinema jaialdietatik hasi eta mugimendu sozialetako kolektiboetaraino. Horien artean dago Euskal Herriko Sare Lesbianista, QCPrekin elkarlanean azaroaren 19an Bilboko Karmelan proiektzioa antolatu duen kolektiboa. “*Israel pa’ la tumba, nosotrxs pa’ la rumba*” izenburupean antolatu du ekimena, eta *Beyond the Frontlines: Tales of Resistance and Resilience from Palestine* (Frontetik harago: erresistentzia eta erresilientzia istorioak Palestinatik) filma proiektatuko dute bertan. Filma 2017an eginikoa da, Alexandra Dols zinemagileak zuzendua eta ekoitzia. Palestinako hainbat pertsonaren parte-hartzearekin –besteak beste Samah Jabr psikiatra eta idazlearekin– Israelen

Alexandra Dols-en
*Beyond the Frontlines:
Tales of Resistance and
Resilience from Palestine*
filmeko fotograma.



okupazioak Palestinako herriaren buru-osasunean dituen ondorioak, trauma koloniala eta alienazioaren zein desalienazioaren gaiak aztertzen ditu. Palestine Cinema Days jaialdian film dokumental onenaren Sunbird saria irabazi zuen.

Samah Jabr psikiatra eta idazle palestinarra idatzitako zutabe batzuetan oinarritzen da filma; idazleak horiek irakurtzen ditu, eta filmaren egitura osatzen dute. Bestalde, hainbat elkarrizketa eta artxiboko nahiz filmatutako irudiak azaltzen dira filmean. Jabr-en ikuspuntutik, "Israelen okupazioa ez da soilik auzi politikoa, buru-osasun arazoa ere bada", eta filma emakume eta gizon palestinarrek okupazioaren kanpo eta barne ondorioak esperimintatzeko duten moduaren azterketa da. Izan ere, Dolsen arabera, "eguneroko kolonizazioak ez dakar soilik lurra, etxeak, zerua edo ura okupatzea. Ez du bere nagusitasuna armen bidez bakarrik inposatu nahi; gogoak ere moldatzen ditu, fronteetatik harago". Elkarrizketatuek identitate, erlijio, orientazio sexual, kultura politiko,

*Apartheidaren
erregimenaren aurpegi
zuriketa izan nahi duen
LGTB zinema jaialdiak
(TLVFest) 50 zinemagile
baino gehiagoren
lanak kendu ditu bere
filmen artetik*

ingurune sozial eta jatorri geografiko ugari irudikatzen dituzte. Aniztasun hori Alexandra Dols zuzendariak jarrera politiko gisa aurkeztu du. Jabr-en arabera, "filmak ez die bizkarra ematen ezta-

baidagarritzat jotzen diren eta, beraz, saihestu eta aintzat hartu behar ez diren pertsoneri; elkarrizketatuak ideologikoki desberdinak dira, baina bat datoz askapenaren aldeko borrokan".

Alexandra Dolsen *Moudjahidate* lehen film luze dokumentala osatu ondoren ezagutu zituen Samah Jabr-en idazkiak, zeintzuetan Nazio Askapenerako Fronteko aljeriar emakumeen independentziaren aldeko aktibismoa aztertzen zen. Palestinaren eta Israelen arteko gatazkari buruzko Jabr-en perspektiba Frantz Fanon psikiatra antkolonialaren analisisan inspiratzen da, zeinak dioten nazioaren askapena ezin dela gertatu deskonposaketarik gabe. Interesgarria gertatzen da oso, ikustea nola QCP bezalako egitasmo baten baitan, teoria dekolonialek gidatutako lanek zentraltasuna hartzen duten.

Euskal Herrian Sare Lesbianistaren eskutik egingo den proiektioan interesatua dagoenak taldearen sare sozialetan izango du eskuragai informazio gehiago datozen egunetan. ●